

**ETXAURI****Ordenantza, Hirigintzako tramitazioen tasak arautzen dituen. Behin betiko onespena**

Udalak, 2012ko urriaren 19an egin bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

"Hirigintzako tramitazioen tasak arautzen dituen ordenantza hasiera batean onesteko erabakia 2012ko 173. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 3an. Jendaurreko epea iragan denez inork horren kontrako alegaziorik aurkeztu gabe, Udaltzariak, legeak eskatzen duen gehiengo duela, ondoko erabakia hartu zuen osoko bilkuran:

1. Behin betiko onestea Hirigintzako tramitazioen tasak arautzen dituen ordenantza.
2. Ordenantzaren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea."

Etxauren, 2012ko azaroaren 30ean.-Alkatea, Santiago Huarte Astiz.

**ORDENANTZA, HIRIGINTZAKO TRAMITAZIOEN  
TASAK ARAUTZEN DITUENA**

*Oinarria.*

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 12.1, 100. eta ondoko artikuluetan xedatuaren babespean ezarri da ordenantza hau.

**Zergapeko egintza.**

2. artikulua. Zergapeko egintza da hirigintzako edozein jarduketa tramitatzeari dagozkion zerbitzu tekniko edo administratiboak ematea, hirigintzako jarduketa udal mugapearen edozein tokitan egiten denean, hala lur pribatua nola publikoan.

3. artikulua. Tasa hauei loturiko udal ekintza hirigintzako jarduketa hauei gauzatzen da:

- a) Obra lizentziak ematea.
  - b) Udal Planeko aldaketa puntualak tramitatzeko.
  - c) Plan partzial edo bereziak eta haien aldaketak tramitatzeko.
  - d) Lerrokatuen azterlan osagarriak edo xehetasun azterlanak tramitatzeko.
  - e) Unitateen mugapenak eta erabilera aldaketak tramitatzeko.
  - f) Lur banantzeak tramitatzeko.
  - g) Birzaketak edo kudeaketarako bestelako bitartekoak tramitatzeko.
  - h) Urbanizazio proiektuak tramitatzeko.
  - i) Hirigintza arloko kontsultak.
  - j) Alderdi batek eskaturik abiarazitako auri espedienteak.
  - k) Jarduera lizentzia eta irekitzeko lizentzia ematea.
- l) Eta, oro har, aurrekoetan sartzen ez den hirigintzako edozein tramitazio, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak babestua baldin bada.

**Ordaindu beharra.**

4. artikulua. Hirigintzako tramitazioa eskatzen den unean sortzen da tasa ordaindu beharra.

**Subjektu pasiboa.**

5. artikulua. Hirigintzako tramitazioa eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek ordaindu behar dute.

**Tarifak eta karga-tasa.**

6. artikulua. Hirigintzako aholkularitzaren txostenek eta prentsan argitaratzen diren iragarkiek zer kostu duten, horrenbertze izanzen dira aplikatu beharreko tarifak, tasak eta karga-tasak, ordenantzaren 3. artikuluan aipatzen diren hirigintzako jarduketari dagokienez.

Alkatetzak egiten du tasen behin betiko likidazioa, eta behar den osoko bilkuran emanen dio horren berri Udaltzari.

**Tramitazioa.**

7. artikulua. Hirigintzako tramitaziorako eskaera orok berarekin beharko ditu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak aipatzen dituen edukia eta zehaztapenak.

***Kudeaketa arauak.***

8. artikulua. Planeamendurako espedienteak tramitatzeko arduradunek, udal teknikarien aldeko txostena hartu ondotik, likidatzeko bulegoari igorriko dizkiote espedienteak. Bulego horrek likidazioa egingen du, eta bertan honako hauek aipatuko ditu: subjektu pasiboaren izena, tasa zer kontzepturen arabera likidatzen den, tasaren tarifa eta zenbatekoa.

9. artikulua. Tasen likidazioa onetsi eta gero, interesdunari jakinaraziko zaio, erregelamenduzko epean tasak ordain ditzan.

**AZKEN XEDAPENA**

Bakarra.-Behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra ordenantza honek.

Iragarkiaren kodea: L1216861